## 7- TESTUA: EUROPAR MUGIMENDUAREN KONGRESUAK 118 ORDEZKARI ESPAINIARREN PROPOSAMENEZ MUNICHEN HARTUTAKO ERABAKIA (1962- 06-07/08)

Europar Batasunaren Kongresuak, Munichen 1962ko ekainaren 7an eta 8an bilduta, iritzi dio ezen, edozein herrialdek Europan sartu nahi badu, izan atxikita edo izan elkartze bidez, herrialde horrek erakunde diktatorialak izan beharko dituela; horrek, Frantziaren kasuan, Gizakiaren Eskubideei buruzko Europar Konbentzioaren eta Europako Gizarte Gutunaren arabera, hau esan nahi du:

1.-Benetan ordezkaritza bidezkoak eta politikoak diren erakundeak eratzea, zeintzuek bermatzen baitute gobernua herritarren onespenean oinarritzen dela.

2.- Pertsonen eskubide guztiak egiazki bermatzea; bereziki, norberaren askatasunari eta adierazpen-askatasunari buruzkoak, gobernuaren zentsurarekin.

3.- Erlijio naturalen izaera berezia aitortzea.

4.-Askatasun politikoak oinarri demokratikoen gainean baliatu ahal izatea eta langileek beren oinarrizko eskubideak defendatu ahal izatea; besteak beste, lanerako- eskubidearen bidez.

5.- Iritzi-korronteak eta alderdi politikoak antolatzeko aukera izatea, oposizioaren eskubideak aitortuta.

Kongresuak itxaropen sendoa du aurreko oinarri horien araberako eboluzioak aukera emango duela Espainia Europan ez sartzeko; eta adierazgarritzat dauka Kongresuan partaide izan diren espainiar ordezkari guztiek adierazi izana seguru daudela frankismoaren ordezkari gehienek nahi dutela eboluzio hori zuhurtzia politikoaren arauen arabera egitea, egoerak aukera ematen duen bezainbesteko azkartasunarekin, denen zintzotasunarekin eta eboluzio-prozesuaren aurretik, prozesuan bertan nahiz prozesuaren ondoren bortxakeria aktibo nahiz pasiboari uko egiteko konpromisoarekin.

*Munich (Alemaniako Errepublika Demokratikoa), 1962ko ekainaren 8a.*

LIVEWORKSHEETS